



MEDIAPART

## Frantziako lan erreforma eta Nuit Debout mugimendua

Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

Ehunka lagunek Parisko République plaza okupatu dute apirilaren 1etik, Nuit Debout ekimenaren baitan. Frantziako Gobernuaren lan erreformaren kontrako manifestazioaren ondoren hasitako dinamikak Espainiako Estatuko M15a eta AEBetako Occupy mugimendua ekarri ditu gogora.

Martxoaren 31n piztu zen protesta berria, Myriam El Khomri Enplegu ministroak bultzatu duen erreformaren kontra milaka herritar kalera atera zirenean. Langileak errazago kaleratu ahal izateko aukera eskainiko luke lege aldaketak. Bestek beste negozio-zifrak okertuko balira edo enpresak berrantolatuko balira pertsonala murriztea ahalbidetuko luke. Gainera, kaleratutako langileak kalte-ordain txikiagoa jasoko luke eta enpresa bakoitzeko akordioek hitzarmen kolektiboek baino pisu handiagoa izango lukete.

Hego Euskal Herrian Espainiako Gobernuak ezarritako legediaren antza dute iragarri diren neurri berriek eta patronalaren zein alderdi kontserbadore frantziarren babesa dute.

Erreformaren kontra plazak okupatzeko mugimenduak lehen asteburua pasa du Parisen eta Frantziako Estatuko beste hainbat hiritan –Euskal Herritik gertu, Paben eta Bordelen– ere antolatu dira.

### Plazak hartzeko deialdia

“Enpleguaren lege proiektuak hainbeste lagun mobilizatu baditu, izan da injustizia beti urrunago bultzatuz, jasan genezakeenaren dikea pitzatu duelako”, irakurtzen da Convergence des Luttès webgunean. Atari horren bidez deitu zuten plazak hartzera. Antolatzaileen ustez “gure agintariak arnasarik gabe geratzen ari den sistema betikotzeko gotortu dira, geroz eta atzerakoiagoak diren erreformen prezioa ordainduz eta beti azken 30 urteetako neoliberalismoaren logikarekin bat eginez: botere guztia akziodunentzat eta patrioentzat, aberastasun kolektiboak bereganatzen dituzten pribilegiatuentzat”.

Parisko agenda militantea biltzen duen Demosphere webgunean ikusten denez, egunero 18:00etan deitu dituzte Nuit Debout ekimenaren batzar orokorrak. Gainera, apirilaren 5ean eta 9an beste bi manifestazio deitu dituzte Parisen El Khomri ministroak bultzatutako lan erreformaren kontra.

### EKONOMIAREN TALAIAN

## Gerraren atzean, armagintza industria



Juan Mari Arregi

Munduan gerraren ondorioak zein diren ikusten ari gara azkenaldian, batez ere Sirian, baina baita Europan ere, milaka errefuxiatu iristen ari baitira. Bestalde, hor daude Frantzia eta Belgikako atentatu odoltsuak. Europako atentatuok inpaktu handikoak dira mediatikoki, Europako herritarrogi gertuago eragiten digulako. Askoz gutxiago ukitzen gaituzte gure mugetara iristen diren errefuxiatuek, jadanik lau milioi diren arren Siriako gerratik ihesi. Eta distantzian hain urrun dauden eta telebistek erakusten ez dizkiguten siriarrak luzearen 250.000 hildakoek zer esanik ez.

Aita Santuak berak salatu du Bruselako aireportuan eta metroan izandako atentatuen atzean arma trafikanteak daudela: “Odola nahi dute eta ez bakea, gerra eta ez anaitasuna”. Falta zitzaion esatea Siriako gerraren atzean arma trafikante horiek dabiltzala eurentzat negozioa egiten, AEBak, Errusia eta Europa inplikaturik dauden gerra ororen atzean bezala.

2014ko munduko gastu militarra ia bi bilioi dolareraino iritsi zen; munduko Barne Produktu Gordinaren %2,4 da hori. Batez beste, pertsonako eta urteko 248 euro gastatzen dira armetan. Munduko hamar armagintza enpresa handienetarik zortzi AEBetan aurkitzen dira. Urtero 23.000 milioi dolarreko etekinak izaten dituzte. Espainiako Estatuko 2014an 3.200 milioi dolarreko balioa zuten armak esportatu zituen. Arma produkzio horren gehiengoa Irak, Afganistan, Siria, Libia eta Yemenera doa, hala nola Israel eta Saudi Arabia edo antzeko herrialdeetara. Beraz, ez dezagun ahaztu: Siriako egungo gatazka kapitalarentzat negozio erraldoi bat ere bada, atzean armagintza industria dagoelako.